

# ikastola



**ITSAS BISTAK, BERMEON  
GALSORO BERDEAK, AGURAINEN**





Erreferentziako  
txartela:

Finantza-txartelen  
erraztasun  
guztiekin eta  
gainera...

**Bidaia-  
asistentziako  
doako aseguru**

abantailak era  
guztietako 2.000  
establezimendutan.

Deskontuak  
mundu osoan  
izateko giltza.

Kontsultatu  
**BBK26 gida,**  
**www.bbkes**

orrian



- 3 ELKARRIZKETA:  
JOXE MARI AGIRREKIN SOLASEAN
- 8 ERREPORTAJEA:  
IKASTOLEN JAIAK
- 10 ITSAS BISTA IKUSGARRIAK DITUEN IBILALDIA  
BERMEON
- 13 SORTU ETA URTEBETERA ARABA EUSKARAZ  
AGURAINEN
- 16 IKASTOLA BERDEAK GIPUZKOAN
- 18 SEASKAKO IKASLE OHIAK.  
ENEKO GORRI ETA HAMABOST IKASLE LEOIAN
- 22 NAFARROAKO IKASTOLAK URTEURRENAK OSPATZEN

EDITATZAILEA:  
IKASTOLEN KONFEDERAZIOA  
Zamudioko Teknologia  
Elkartegia, 208 B-1  
48170 ZAMUDIO  
Tel.: 606 33 41 45

KOORDINATZAILEA:  
Zurire Mendizabal  
aldizkaria@eirik.ikastola.net

ERREDAKZIOA:  
Joxean Agirre eta  
Eva Domingo

EUSKARA ZUZENTZAILEA:  
Imanol Artola

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:  
Txema Garzia Urbina

INPRIMATZAILEA:  
GERTU Inprimategia.  
Oñati. Tel.: 943 78 33 09

ISBN:  
Ikastolen Konfederazioa,  
84/933872/6/6

APILRILA 2010

182

IKASTOLA ALDIZKARIA  [www.ikastola.net](http://www.ikastola.net)

ELKARRIZKETA ◀



# Joxe Mari Agirre

30 urte, **Balmasedako ikastolan lehendakari**

*“Hamahiru umerekin abiatu genuen ikastola, eta haietako bat da nire ordezkoa”*

**“KLARETARREK KOMENTUA  
ETA SEMINARIOA ZITUZTEN  
HERRIAN; EUREN ARTEAN  
BETI IZAN DIRA FRAIDE  
JATORRAK ETA  
EUSKALTZALEAK  
KONTRAKOEKIN BATEAN.  
LEHEN TALDEKO FRAIDE  
HORIEN BABESEAN ABIATU  
ZIREN EKINTZA HORIEK  
GUZTIAK ETA ABIATU ZEN  
IKASTOLA BERA ERE”.**

Lehendakariren bat bere karguan urte asko daramalako kexatzen hasten bada, *Joxe Mari Agirreren* kasua gogora diezaioke edonork, 30 urtez izan baita Balmasedako Zubi Zaharra Ikastolako lehendakari. Ikastola honen historia, gainera, ez da batere samurra izan. Lehen bost urteak klaretarren komentuan egin zituzten eta beste hogeitatu bat urte eman dituzte Gurutzeko mojen babesean, 2003an ikastetxea eta lurrak erosi eta bere buruaren jabe egin zen arte. • **Joxe Mariaren** aitonaren jatorrizko abizena Agirreazaldegia zen. Eibartik Balmasedara joan zen XIX. mende bukaeran, bertako jauntxo baten etxean lorazain lan egin eta gazteleraz ikasteko asmoarekin; erregistrora joan zelarik, abizen luzeegia zuela-eta, moztu egin zioten. Gazteleraz ikasi zuen, noski. Balmasedan ez zen besterik egiten, XII. mendean euskara galdu zenetik. • Orain hilabete utzi zuen Joxe Mari Agirrek bere lehendakari kargua. Ia berrehun lagun bildu ziren bere agurreko bazkarian. Ikastolako lehen promozioko ikasle batek, *Josu Susok*, hartu dio erreleboa.

**N**olakoa zen Balmasedako giroa ikastola sortu zenean? Balmasedak beti izan du tradizio abertzalea. Gerra aurretik ere alkate abertzalea genuen eta halaxe izan da frankismo ondoren ere. Eta horrek ez dauka meritu gutxi, etorkin asko izan dituen herria baita, La Robla izeneko enpresa Leondik hona ekarri zutenetik. Kontuan izan behar duzue Burgos eta Kantabriako mugak bertan ditugula. Baina ez da herri hau bakarrik. Bilbotik hona daudenek, Alonsotegik, Gueñesek eta Zallak ere EAJko alkateak izan dituzte. Txistulariak, esate baterako, beti izan ditugu herrian. Gaurko Peter Ansorenaren aitona Balmasedan aritu zen txistulari eta osaba



bat, berriz, Castro Urdialesen. Gure aita musikari afizionatua zen. Euskadiko Bandan jotzen zuen, eta oraindik etxean gordetzen dugu Jaurlaritzako banda haren argazki bat. Euskaltzalea ere bazen, eta jubilatutako zenean haurren abesbatza eta dantza taldea sortu zituen. Klaretarrek komentua eta seminarioa zituzten herrian; euren artean beti izan dira fraide jatorrak eta euskaltzaleak kontrakoekin

batean. Lehen taldeko fraide horien babesean abiatu ziren ekintza horiek guztiak eta abiatu zen ikastola bera ere.

*Klaretarren komentuan abiatu zutenen, beraz, ikastola.* Gau Eskolako irakasleetako bat izan zen gure lehen lehendakaria, Felipe Elorriaga. Iberdrolan lan egiten zuen eskualde honetako ingeniaria zen. Klaretarretan egiten ziren ekintza guztiei babes juridikoa ematearren, 1970ean Zubi Zaharra kooperatiba sortu zuten Elorriagak, gure aitak eta beste zenbaitek. Ni ere tartean nengoen, nahiz eta 22 urte besterik ez nituen. Izen hori eman zitzaion bi urte geroago sortu zen ikastolari. Aita Zuloaga zegoen orduan klaretarren buru herrian. Oso euskaltzalea zen. Seminarioa hutsik zegoen. Zituzten ikasle apurrak Agurainera eramane zituzten eta gela horietako bat utzi ziguten 13 umerekin ikastola abiatzeko. Azkoitiko neska bat izan zen lehen andereñoa. Hamahiru ume haietako bat izan da, Josu Suso, nik utzitako lehendakari kargua bere gain hartu duena. Azken urteotan elkarrekin lan egin dugu Euskadiko Kutxan eta balio handikoa da.

**“HERRIKO MOJEN ARTEAN ERE BAZEGOEN JENDE JATORRA. IKASLE GUTXI SAMARREKIN ZEBILTZAN ETA KLARETARREN KOMENTUA BOTA ETA ETXEA EGIN BEHAR ZITUZTELA JAKIN GENUENEAN, HITZ EGITERA JOAN GINTZAIZKIEN.”**

▲ Alazne izeneko andereño horren bila saiatu gara geroztik, baina ez dugu aurkitzerik lortu. 2-6 urteko umeekin egin genuen lan hasieran. Hemen maristak, mojak eta eskola publikoak genituen. Sei urtetik gorako umeak hartzen zituzten, eta 2-6 urteko tarte hori aprobetxatzen hasi ginen. Berrogei umeko lau gela izatera iritsi ginen oso azkar. Aseguru sozialik gabe eta soldata baxuarekin egiten zuten lan andereño haiek. Andereño haietako bat, Karmele Uriarte, gaur gure irakaslea da.

### Noiz zabaldu zenuten Lehen Hezkuntza?

Herriko mojen artean ere bazegoen jende jatorra. Ikasle gutxi samarrekin zebiltzan eta klaretarren komentua bota eta etxeak egin behar zituztela jakin genuenean, hitz egitera joan

gintzaizkien. Sei urte arteko umeak sartzeko baserri bat erosi genuen eta sei urtekoak taldean berengana eramatea proposatu genien, baldin eta astean hiru euskara-ordu

emateko baldintza onartzen bazuten. Inozo samarrak ginen orduan. Astean hiru euskara-ordu emanez gero, euskaldundu egingo zirela espero genuen. Gure artean komentatzen genuen hamar urte barru Balmasedako prozesioetan euskaraz ere hitz egingo zela. Euskara emateko moja euskaldun bat ekarri zuten, eta horrela hasi ginen mojekin elkarlanean.

*Ze meritu egin zenituen zuk lehendakari izateko?* Euskara trakets samarra daukat, baina neu nintzen orduan hitz egiten zekien bakanetakoa eta horregatik aukeratuko nindutela esan zidaten. Zallako Euskadiko Kutxan egiten nuen lan ogibidez.




## “AUSARDIA ERE IZAN GENUEN; URTE HORRETAN PIXKA BAT SUFRITU GENUEN, BAINA GAUZAK ONDO ATERA ZIREN. INMACULADA IKASTETXEA ZENA ZUBI ZAHARRA IKASTOLA BIHURTU ZEN.”

*Noiz hasi zineten ikastetxe hau erosteko aukera aztertzen?* 1998an esan ziguten mojek alde egiteko asmoarekin zebiltzala. Mojak bakarrik zituzten ordurako eskolak ematen. Guri zerua irekitzen hasi zitzaigun, ikastetxearen titular izateko aukera ikusten hasi baikin. Artean ez genuen erosteko aukerarik ikusten, ez genuen pentsatu ere egiten. Baina edozein modutan ere egoera oso konplexua bizi izan genuen. Kontuan izan behar da ikastetxean bazeudela ikastolatik igaro gabe sartzen ziren ikasleak. Hain zuzen ere, horien gurasoak ziren guraso elkartean agintzen zutenak. Mogen ordenak Irunen zuten egoitza nagusia, eta hango buruarekin


negoziatu genuen hitzarmena. Buru hori nahikoa irekia zen. 1998ko kontuak dira horiek. Manu Aurrekoetxea eta biok ibili ginen negoziaketa horietan, eta bost urteko hitzarmena izenpetu genuen. Bazuten ikastetxe honetan moja bat oso euskaltzalea zena, Errenteriakoa, Jone Arozena, eta hark zuzendari izaten jarraituko zuela erabaki genuen, ikastolakoak ez ziren guraso horiek lasai izan zitezten. Artean ia irakasle guztiak emakumezkoak ziren. Oker ez banaiz, hiru ziren gizonezkoak: Ritxar, Gorka eta beste bat.

*Titularitatea eskuratu eta Ibilaldia antolatzen hasi zineten.* Dena batera etorri zen. Ausardia ere izan genuen; urte horretan pixka bat sufritu genuen, baina gauzak ondo atera ziren. Inmaculada Ikastetxea zena Zubi Zaharra ikastola bihurtu zen eta bost urte eman genituen, hitzarmenean erabaki bezala, alokairurik ordaindu gabe. Seigarren urterako hilean 200.000 pezeta ordaindu beharko genituela iragarri ziguten, eta orduan hasi





PATXADAZ, ZEHAZTASUNEZ ETA UMORE  
HANDIZ GOGORA EKARRI ZITUEN JOXE MARIK  
ZUBI ZAHARRA IKASTOLAREN ISTORIOAK,  
ELKARRIZKETA EGUNEAN.



ginen erosketa egiteko pausoak ematen. Negoziaketak oso azkar burutu genituen Gorka Fernandez lanari esker. 2003ko abenduaren 3an izenpetu genituen eskriturak. Aste batzuk itxaron behar izan genituen erosketa Euskararen Egunean egin ahal izateko.

**Zenbat ordaindu zenuten?** 900.000 eurotan erosi genituen Ikastetxea eta inguruko lurrak. Ibilaldiko dirua genuen, Ikastolen Elkarteak lagundu zigun eta mailegu bat atera genuen. Ordurako Gorka irakasle talde bat osatzen hasita zegoen, euskaraz ez zekiten irakasleak ere ikasten hasi ziren; EGA atera eta erabat integratzeko bidean ziren. Sekulako aldaketa eman genion ikastetxeari. Baina ez ziren gauzak horretan geratu. Sei urte hauetan lan berriak egin ditugu. Eraikin berri bat jaso dugu ikastetxearen atzeko lurretan.

**Udalaren laguntzak ere izan dituzue.** Bai, egia esanik, Balmasedako udalak beti izan du jarrera laguntzailea.

**Historia honetan guztian zure emazteak ere izango du bere partea.** Bere partea badu, noski. Ikastolaren alde lanean eman ditudan urte hauetan guztietan eduki dut ondoan, eta biok partekatu ditugu kezkak eta pozak. Ikastolako lehendakari kargua askoz ere arinagoa da biren artean ematen bada, eta gure kasuan halaxe izan da.

**Zer egin behar duzu orain jubilatuta?** Lau hilabete ezer ez egiteko gomendatu ziguten, aspertzen ikasteko eta gero hasteko nahi genuena egiten. Nik euskara hobetu nahi nuke. Hortik aparte, musikan ere oso zalea naiz, ikasketa batzuk egin nituen kontserbatorioan. Txistua eta organoa jotzen ditut eta horretan jarraituko dut. Cavalle-Coll bat dugu parrokan eta deitzen didatenean joaten naiz jotzera. **ikaStOla**

**“SEKULAKO ALDAKETA EMAN GENION IKASTETXEARI. BAINA EZ ZIREN GAUZAK HORRETAN GERATU. SEI URTE HAUETAN LAN BERRIAK EGIN DITUGU.”**

### UN RÉCORD PARA LA HISTORIA

Ser presidente de una ikastola durante 30 años no está al alcance de cualquiera. Ese récord lo ostenta Joxe Mari Agirre, de Balmaseda. Su mérito es aún mayor, por cuanto que la trayectoria de la ikastola Zubi Zaharra durante todos esos años está jalonada de dificultades. Estuvieron cinco años en el convento de los claretianos, pasaron a formar parte del colegio Inmaculada de las monjas de la Cruz, con las que han colaborado durante más de veinte años, hasta que lograron primero la titularidad del colegio y la compra de la finca más tarde. El optimismo de Joxe Mari Agirre es tal que su relato obvia los momentos de zozobra y pone el acento en el trabajo en equipo y la ilusión por el logro de las metas difíciles.

### UN RECORD POUR L'HISTOIRE

Etre président d'une ikastola pendant 30 ans n'est pas donné à tout le monde. Ce record est détenu par Joxe Mari Agirre, président de l'ikastola de Balmaseda. Le mérite est d'autant plus grand que l'ikastola Zubi Zaharra a connu des hauts et des bas pendant toutes ces années. Après avoir été abritée pendant cinq ans au couvent des carétaires, l'ikastola a fait partie du collège Immaculé des religieuses de la Croix, avec qui elle a collaboré pendant plus de vingt ans, avant d'être titulaire du collège dans un premier temps puis d'acheter le couvent un peu plus tard. L'enthousiasme de Joxe Mari Agirre est tel que son récit éclipse les moments de détresse pour mettre l'accent sur le travail d'équipe et la satisfaction des objectifs atteints.



2. ekar  
ilustrazio  
eta ipuin  
lehiaketa

Parte hartu!

oinarria: www.ekar.com-en-ara  
ekar sareko liburu dena guztietan



ikastolen

# JAJAK



KRESALA ETA GAROA,  
ITSASOA ETA  
NEKAZARITZA IKASTOLEN  
FESTEK ELKARTUKO  
DITUZTE, MAIATZAREN  
30EAN BÉRMEON ETA  
EKAINAREN 20AN  
AGURAINEN, TXOMIN  
AGIRREK BERE  
ELEBERRIETAN KONTATU  
ZUEN BEZALA.

IA EZINA ZEN IKASTOLAKO EGUN BATEAN BÉRMEON ETA AGURAINEN IKASLEK BATZEA ARGAZKIAN  
LAUTADA IKASTOLAKO NESKA-MUTILAK IBILALDIKO ARROPA DOTOREA LUZITZEN. ORAIN BADAHITE  
MAIATZAREN 30EAN KOSTALDEAN DUTELA ONGI PASATZEKO HITZORDUA.





**Lehen** bilgune horretan, Ibilaldian, itsasoari lotutako egitaraua antolatu dute, kresala usainekoa, marmitakoa eta sardina errea jan eta "Marigoran kibunbera" beste behin kantatuz ibiliko dira ikastola zaleak, Bermeon.

**Bigarren** bilgunean, Agurainen, orain urtebete ikastola bat sortu zuten gurasoak ari dira Araba Euskaraz antolatzen eta ilusia daria, "gogo biziz" proiektu berri bat esku artean izateak dakarren ilusio eta indarra barra-barra.

*bizkaia:*

# IBILALDIA

ITSAS BISTA IKUSGARRIAK  
DITUEN IBILALDIA BERMEON  
Milaka lagunek “Marigoran kikunbera”  
egingo dute maiatzaren 30ean

Dena izango da berezia aurtengo **Ibilaldian**, Bermeo ere berezia delako, bertako euskara, kultura eta tradizioak ere indartsuak direlako. Kresal usaina bakarrik ez: sardina eta hegaluzea jateko lekuak, paella erraldoiaren ordeztu marmitako eltzeak, kontzertu aukera itzela eta edizioko kanta, “Marigoran kikunbera”, aspertu arte kantatzeko parada eskainiko ditu **Bermeok maiatzaren 30ean**.





**BILBIDEAK  
EZUSTEKOAK  
EMANGO OMEN  
DIZKIO ASKORI.**

"Ikastola erdigune gisa hartuta, bi borobil egingo ditu ibilbideak, bata herri aldera eta bestea mendian barrena, auzo bi batuz, Arene eta Agarre, hain juxtu ere. Ikastola Arene auzoan dago eta ezagunagoa da, baina Agerre auzoarekin jendeak

MARKEL GOIKOETXEA ETA AINTZANE EGAÑA, ELIZALDEKO LEHENDAKARI ETA ZUZENDARIAK HURRENEZ HURREN, IKASTOLAREN HAZKUNDEARI BURUZ MINTZATU ZIREN. HERRIAN ERABAT TXERTATUTAKO IKASTOLA BAITA.

**"Erraz ikasteko moduko melodia bat nahi genuen eta bete-beteen asmatu zuten. Mikel Urdangarin eta Alex Sarduik ere kantatzen dute. Abestiaren aurkezpenean 800 lagun bildu genituen frontoian".**

**Herriko lau bat margolari ere animatu dira Ibilarten parte hartzera.**

**Ibilaldi egunean, urtero bezala omenaldi a egingo da, eta itsasoarekin lotutako bizimodua.**

ezustekoa hartuko du", hasi zen **Eider Gotxi**, ikasle ohia, ikastolan irakasle ibilitakoa eta aurtengo dinamizatzailea. Agerre auzoko landa batean jarriko dute gune bat eta hortik itsas bistak ikusgarriak omen dira. "Eguna argia bada Larrun ere ikusten da", erantsi zuen **Gari Meabek**, Ibilaldiko koordinatzaileak. "Ogoño bertatik bertara dago eta Izero ikusten da behean, itsasoan", jarraitu zuen Eiderrek. Bermeoko

Turismo Bulegoan geundela ematen zuen, nahiz eta arropa saltzeko batzokiaren azpiko areto zabalean geunden.

Zazpi kilometroko ibilbide horretan bost gune ezarriko dituzte: Ikastola, Tala (hau ere itsasoaren kontra), Burujabetasun zelaia, Agarre eta Arene. "Hirugarren gunean sardina eta hegaluzea jateko lekuak jarriko ditugu. Arrantzarekin lotura oso estua duen herria izanik, zerbait berezia eskaini behar genuela ikusi genuen; horrela, bertako kontserba fabrikek ere hartuko dute parte beren produktuak eskainiz", esan zuten koordinatzaileek.

Bertako gastronomia lantzen hasi eta beste pauso bat ere eman dute: ohiko paella erraldoiaren orde z marmitakoa jarriko dute 800-1.000 lagunentzat eta nahi duenarentzat LumaGorri oilaskoa ere bai.

"Ikastola eta tala familia girokoak izango dira, eta Agarre eta Arene, berriz, gainontzeko kontzertuak antolatzeko baliatuko ditugu. Aurtengo Ibilaldiak maila handiko kontzertuak eskainiko ditu. Bertan izango dira Gatibu, Betagarri, Sei Urte, Lor,

*Anje Duhalde, Gora Herria eta beste hainbat talde gazte eta helduen guneetan; beste guneetan, aldiz, Patxi eta Konpainia, Aitzama, Txan Magoa, Betizu, Kiki Koko eta Moko, Xiba lehiaketak, herri kirolak eta umeen tailerrak, dantza taldeak, bertsolariak eta animazio taldeak", esan zuten Eiderrek.*

Dagoeneko famatu egin den abestiaren hitzak ("Marigoan kibunbera/ busti gaitzean batera") Jose Muruaga irakaslearenak dira eta musika Korrontzi taldearena. "Erraz ikasteko moduko melodia bat nahi genuen eta bete-beteen asmatu zuten. Mikel Urdangarin eta Alex Sarduik ere kantatzen dute. Abestiaren aurkezpenean 800 lagun bildu genituen frontoian", erantsi zuen Garikoitzek.

Bideoklipa Jabi Elortegi zine zuzendariarena da. "Hemengo guraso ohia da eta oso azkar animatu zen gurekin parte hartzera. Ikastolako ume, irakasle, langile eta ikasle ohiek hartzen dute parte, baita

Etxe,

*Euskal Herri osoko famatuak ere. Izugarri polita geratu zen*; jarraitu zuen Eiderrek. Gor-mutuen hizkuntza erabili da bideoklipa egiterakoan eta oso originala da.

Kultura eta kirol mailako ekintza zerrenda bat burutu dute Ibilaldia girotzeko. Aurtengo Ibilartek ere ukitu berezia izan du, parte hartu duten artistei gaia eman baitzitzaizen, hala nola, itsasoa. Herriko lau bat margolari ere animatu dira Ibilarten parte hartzera.

Ibilaldi egunean, urtero bezala omenaldia egingo da, eta itsasoarekin lotutako bizimodua eman duten zenbait laguni oroigarria emango zaie. Oroigarri hauek, herrikoa den Nestor Basterretxeak egingo ditu bere eskuzabaltasuna agertuz.

Atera duten arropak ere badu itsasoarekin lotura

txiki bat, uda aurretik zegoela, jaiak herrietan eta Arrantzale Eguna zetorrela eta, mahoi koloreko elastikoak eta egun horretarako kapelu bereziak egitea erabaki baitzuten. Sekulako arrakasta izan zuten, gainera, bai Bermeon, Lekeition eta Ondarroan. Kostaldean azken baten.

*“Antzar Egunaren bezperan 350 mahoizko kamiseta saldu genituen Lekeition”*, gogoratu zuen Garik. •



*“Une honetan ez daukagu zulo bakar bat ere libre eta ondoan genuen futbito zelaian erakin bat jaso dugu; bukatzeko zorian daukagu”.*

*“Ikastolen Elkartean proiektuetan sartu ginen, eta orain oinarrizko liburuak batuaz daude. Hala ere, harremanetan bizkaieria darabilgu”.*

## Bigarren eraikin bat egin dute DBHkoentzat

Bermeoko Eleizalde bi lerroko ikastola da eta 0-16 urte bitarteko 680 ikasle ditu. 1983an eraiki zuten Arene auzoan gaur duten eraikin ederra. *“Hamasei gela sartzeko pentsatua zegoen. Eraikina oso ederra da, argitsua, barruan trinketea duena. Baina 0-3 zikloa sartu genuenean hasi ginen hormak mugitzen, eta une honetan ez dakit horma bat ere egongo den bere lekuan”*, hasi zen **Aintzane Egaña** zuzendaria ikastolaren azken urteotako historia kontatzen. *“Une honetan ez daukagu zulo bakar bat ere libre eta ondoan genuen futbito zelaian erakin bat jaso dugu; bukatzeko zorian daukagu. DBHko bigarren zikloa pasatuko dugu horretara. Ibilaldiak*

*zorraz arintzeko balioko digu”*, erantsi zuen.

Gurasoek oso ondo erantzun dute. *“25 urte igaro dira aurreko edizioa egin genuenetik. Ilusio handiarekin ari gara lanean. Ikasle ohiek ere oso lotura estua dute ikastolarekin. Urtero 180ren bat biltzen dira bazkaritan. Erretore kontseiluan ere baditugu orain guraso bihurtu diren batzuk. Finean, sekulako giroa sortu da herrian”*, hasi zen **Markel Goikoetxea** lehendakaria.

Herrian erabat txertatutako ikastola da Eleizalde. Ikastolak berak antolatzen du, esate baterako, Sukalki Eguna. *“Elkarteetako berrehun sukaldari biltzen dira egun horretan gisatua egiteko”*,

gogoratu zuen Markelek. Ahozko erregistroak oso bizirik dituen euskara da Bermeokoa. Bizkaiera lantzen saiatu dira beti ikastolan. Baina ez dela erraza aitortzen du Aintzane. *“Bizkaieraz dagoen material didaktikoa urria da. Orain bi urte arte, bizkaierazkoak erabiltzen genituen, baina metodologi aldaketa beharrezko ikusita, Ikastolen Elkartean proiektuetan sartu ginen, eta orain oinarrizko liburuak batuaz daude. Hala ere, harremanetan bizkaieria darabilgu”*, esan zuen.

Umeen abesbatza bat ere badute ikastolan. Musikako irakasleak zuzentzen du gelaz kanpoko orduetan. Ibilaldian entzuteko aukera izango dugu. •

GARI MEABE ETA EIDER GOTXI, IBILALDIAKO BI KOORDINATZAILEAK. URTE OSOKO OLATUARI TXANPA HARTUTA; LAN BIKAINA EGINDAKOAK BIAK, ZEIN BIAK.

### IBILALDIA CON SABOR A MAR

No podía ser de otro modo tratándose de Bermeo, una localidad eminentemente marinera. El circuito que sube hasta el barrio de Agarre, ofrece espectaculares vistas al mar. La canción habla de mareas altas y de zambullidas en el euskara. El lugar de la ya habitual paella gigante en Bermeo prepararán un marmítako para mil personas. Habrá un área en el que servirán sardinas y bonito en sus diferentes modalidades. Será un Ibilaldia con muchos ingredientes, puesto que cuenta también

con un amplio programa de grupos musicales. El dinero que se recaude servirá para hacer frente al presupuesto de un nuevo edificio que albergará varios cursos de ESO. *“El edificio actual data de 1983, pero con la integración del ciclo de 0-6 años empezamos a mover algunas paredes y creo que no hay ninguna que esté en su sitio. El nuevo edificio era una necesidad inaplazable”*, dijeron Markel Goikoetxea y Aintzane Egaña, presidente y directora de la ikastola.

### UN IBILALDIA AUX SAVEURS MARINES

Il ne pouvait en être autrement pour cet Ibilaldia organisé cette année à Bermeo. Le circuit montera jusqu'au quartier de Agarre, d'où l'on pourra jouir d'une formidable vue sur la mer. La chanson parle de marées hautes et de plongeurs dans l'euskara. Au lieu de la traditionnelle paella, cette année ce sera marmítako au menu, pour quelque mille personnes. Il y aura également un stand où l'on servira sardines et thon selon différentes

recettes. Un Ibilaldia riche et varié donc, à l'image de la programmation musicale. Les bénéficiaires de la journée serviront à financer le nouveau bâtiment qui abritera des classes du Secondaire. *“Le bâtiment actuel qui date de 1983 est devenu trop petit depuis l'ouverture du cycle 0-6 ans. Le nouvel édifice était vraiment indispensable”* nous ont confié le président et la directrice de l'ikastola, Markel Goikoetxea et Aintzane Egaña.

araba:



[www.arabaeuskaraz.net](http://www.arabaeuskaraz.net)

# ARABA EUSKARAZ



# SORTU ETA URTEBETERA ARABA EUSKARAZ

## Lautada Ikastolak antolatuko du Agurainen, besteak beste, bere proiektua ezagutzera emateko

Orain 25 urte egin zen Araba Euskaraz Agurainen. Eguraldi txarrak desegin zuen jendearen ilusioa eta askok negar egin omen zuten. Arantza hura atera nahi dute orain askok eta herriko elkarte gehienek erakutsi dute laguntzeko gogoia. Aurtengo antolatzailea, ordea, **Lautada Ikastola** izango da, ixteko zorian zegoen moja ikastetxeko bateko guraso talde batek sortu zuen ikastola, alegia.



**URTE GOGORRA EGOKITU ZAIE AGURAINGO LAUTADA IKASTOLAKO GURASO**

**ETA IRAKASLEEI, IKASTOLA MARTXAN JARRI ETA EKAINAREN 20RAKO ARABA EUSKARAZ ANTOLATZEA ALDI BEREAN EGIN BEHAR IZAN BAITITUZTE.** Baina ez omen dute nekerik sumatzen, ilusioa baizik. *“Proiektu berria da, iaz sortutako ikastola da Lautada eta ilusioa nabari dut nik behintzat gurasoen artean; eta ilusioa dagoenean lan egitea oso erraza izaten da. Hemen gurasoak itxoiten ikusten ditut, nik zer esan itxoiten, eta ideia berriak ematen dizkidate. Niri gurasoek izugarri eman didate”,* hasi zen hizketan **Anjel Olalde**, Araba Euskaraz koordinatzailea. Desagertzeko arriskuan zegoen moja ikastetxe bat erosiz sortu zen Lautada Ikastola Agurainen orain urtebete eta, nahi beste ez bada ere, gauza asko aldatu dituzte. *“Ikasleak erabat euskalduntzeko denbora beharko da, baina bideak jartzen ari gara: hasteko, hurrengo ikasturtean HH osoan eta LH1. zikloan D erudia ezarri nahi dugu. Eman behar genituen aurrera pausuak (irakaslegoak onartu, eskola kontseiluan bozkatu eta gurasoei inkesta bat pasa) egin ditugu; eta orain Hezkuntza departamentukoek erantzuna eman behar digute. Gure*

*etorkizunari begira oso aurrerapen handia suposatuko duen aldekata txiki bat izango da”,* esan zuen **Maite Ortega** zuzendariak.

Berrikuntzak eraikinean ere nabari dira. Lehen solairu osoa margotu dute, eta fatxadari zer kolore eman eztabaidatzen ari ziren bertaratu ginen egunean. *“Araba Euskaraz biltzeko den dirua maileguari erantzuteko izango da, baina kalitatea arlo guztietan bermatze bidean, eraikinean ditugun premia larrienei ere eman nahi diegu irtenbidea eta gimnasio bat ere egin beharra daukagu”,* hasi zen **Javier Ameskoa** lehendakaria. Alderdi ekonomikoa garrantzizkoa bada ere, herrian proiektua ezagutarazteak du lehentasuna. *“Oraindik herritar batzuek mojen ikastetxea izaten jarraitzen dugula uste dute eta ikastola bat gairela adierazteko ere balioko du egunak”,* erantsi zuen lehendakariak.

Orain 25 urteko ikastola hura publikatu egin zen 1993an, herriko eskola publikoarekin bat egin zuen eta D ereduarekin lan egiten dute. *“Hemen 25 urteotan bai AEK-k eta bai publikatu zen ikastolak sekulako lana egin dute herria euskalduntzen. Sortu berria*

**“Ikasleak erabat euskalduntzeko denbora beharko da, baina bideak jartzen ari gara: hasteko, hurrengo ikasturtean HH osoan eta LH1. zikloan D erudia ezarri nahi dugu”.**



*den Lautada Ikastolak eragile bat gehiago izan nahi du bide horretan, eragile garrantzitsu bat, Euskal Herri osoko ikastola mugimenduaren parte izango delako”,* jarraitu zuen Olalde.

Baina horrelako ekintza bat antolatzeak dituen arriskuak ere ez ditu ahaztu nahi. *“550 bat lagun*

*behar dira egun horretan lan egiteko eta ikastolako familiak 200 dira. Kanpoko laguntza ezinbestekoa izango da, beraz. Aguraintzat bakarrik ez, bailara osoarentzat garrantzizkoa den proiektua dugu esku artean, eta beste lurraldeetako euskaltzaileen bultzada oso ondo etorriko zaigu”,* erantsi zuen.

Agurainen beti egon da euskararen aldeko sentimendua. *“Bertako edo inguruko hiltun batzuk ezagutu genituen. Oso*



LAUTADA IKASTOLAKO IKASLE GEHIENAK PATIOTIK AGURTZEN. LEHENDAKARIA: MAITE ORTEGA, ZUZENDARIA ETA ANJEL OLALDE ARABA EUSKARAZKO KOORDINATZAILEAK GONBIDAPENA LUZATZEN: "EKAINAREN ZOAN, AGURAINEN". JAVIER AMESCOA.



*garrantzitsua izan zen, gainera, Zumarragako Orbegozok hemen enpresa bat ireki izana. Gipuzkoar langile andana ekarri zuen Agurainera eta euskalduntzeari bultzada ederra eman zion", gogoratu zuen.*

*"Herrian oso giro ona sumatu dugu. Gastronomi, kultura eta kirol elkarteek erakutsi digute lan egiteko borondatea, baita ikastola publikoko guraso talde batzuek*

*ere. Udalak ere oso jarrera ona erakutsi du", gogoratu zuen Javier Ameskoka lehendakariak.*

*"Ikastolan bertan irakasleen artean ikusi dudana giroa izugarria da eta izugarria ere bada Bigarren Hezkuntzako ikasleak egiten ari diren lana, facebook-en esate baterako. Gauza txikiak direla ematen du, baina herrian giro bat sortzeko balio dute. Oso gutxitan asmatu dela uste dut leloarekin aurten bezain ondo, hemen 'gogo biziz' ari baitira lanean. Gurasoek ere iaiztik bazekiten aurten Araba Euskaraz hemen egingo zela eta askok Oiongo edizioan hartu zuten parte lan eginez. Bestalde, gogoan izan behar da guraso hauek herrian dauden taldeetan ere lan egiten ari direla, antzerki taldean adibidez; futbol edo dantza guneetan ere ibili dira. Konpromisoa zer den badakien jendea da", erantsi zuen Olalde.*

**ARABA EUSKARAZ BEREZIA**

Bezperatik hasiko da jai giroa Agurainen, ekainaren 19an Ikastolen Elkarteak antolatutako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finala jokatuko baita bertan. Ibilbideak hiru kilometro eskas eta bost gune izango ditu. "Herriari eman nahi diogu protagonismoa; ibilbideak herrian hain esanguratsua den alde zaharra inguratuko du eta sarreratxo bat egingo du barruan, San Juan plazan. Lehen aldia da parke tematiko hau ikastolen jai batean erakusten dela eta gauzak ondo aterako direla espero dugu", esan zuen Olalde. Kantaren hitzak Oihane Perea bertsolariak egin ditu eta melodia Mikel Goikouriaena da. Logoa 'a' eta 'e' hizkien gainean egindako borobila da eta mugimendua

adierazten du. Gogoan izateko modukoa da Harresei aretoan 12:30etan Haur Kantari Txapelketaren finala ere egingo dela. Zirkuituan zehar txarangak, Gasteizko Folklore Eskolako kideak, pailazoak eta artisauak izango dira.

Jateko aukeren artean taloa izango da, talogileak hortxe ariko baitira lanean; ikastolako gunean, berriz, herri bazkaria antolatuko da: paella, LumaGorri oilaskoa eta Kaiku esnekia, Label produktuak eta ogiarteak izango dira nonahi. "Agurain etorkin asko hartzen duen herria da, eta etorkinen herrietako sukaldaritza ere eman nahi genuke ezagutzera", erantsi zuen Olalde.

Agurainek abantaila izugarriak ditu kokapen aldetik, Euskal Herriko puntu askotatik autobidez edo trenez iristeko baldintza erosoak baititu. •

**ILUSIÓN A RAUDALES**

Anjel Olalde, el coordinador del Araba Euskaraz, que ya tiene una dilatada experiencia en la organización de este evento, está encantado con los padres y profesores de Lautada Ikastola de Agurain. una ikastola que surgió hace un año. Necesitarán, como es natural, de la ayuda exterior en la organización del día mismo, puesto que precisan de 550 voluntarios y la ikastola está formada por 200 familias. Hace 25 años

Agurain vivió una experiencia frustrante. En aquel primer Araba Euskaraz llovió mucho, hubo gente que lloró y ahora quieren resarcirse. Las entidades culturales y deportivas de la localidad han expresado su voluntad de colaboración. La ikastola que organizó aquel Araba Euskaraz se publicó en el 93. Lautada Ikastola nace con la intención de ser un pilar importante más en la euskaldunización del pueblo.

**DÉBORDANT D'ENTHOUSIASME**

Anjel Olalde, coordinateur d'Araba Euskaraz et possédant une solide expérience dans l'organisation de la fête, est très content des parents et des enseignants de l'ikastola Lautada de Agurain créée il y a un an. Ils ont eu besoin, comme il est naturel, de l'aide extérieure pour l'organisation de l'événement, puisqu'il a fallu trouver 550 bénévoles alors que l'ikastola ne compte que 200 familles. Le

premier Araba Euskaraz à Agurain il y a 25 ans fut un désastre : pluie sans arrêt et larmes dans les yeux des organisateurs. Cette année Agurain veut se rattraper. Les associations culturelles et sportives de la commune ont manifesté le désir de participer. Lautada Ikastola souhaite être un pilier supplémentaire dans la réappropriation de l'euskara par les habitants de la commune.

## HAURTZARO IKASTOLA OIARTZUN

(Sorkunde Lekuona zuzendaria)

### OINEZ ETA BIZIKLETAN IKASTOLARA

Badira hamar-hamabi urte Eskola Agenda 21 programarekin lanean ari garela. Mugikortasuna izan da Udalarekin batean azken bi urte hauetan gehien landu dugun gaia. Orain bi urte jarri genuen martxan *Oinbusaren* proiektua. Ikastolara oinez etortzeko bide seguruak identifikatu genituen. DBHkoek egin zuten lan hori. Horrekin batera, ikasturte honetan ikastolara oinez etortzeko plangintza egiten hasi ginen. Guraso boluntario batzuen laguntza lortu, eta hamabost eguneko bi saio egin genituen, hamabost egun irailean eta beste hamabost ekainean, auzo guztietatik oinez ikastolara etortzeko. Gurasoek esperientzia hori urte osora zabaltzeko eskaera egin zuten eta auzo batekoa urte osora zabaldu genuen. Bide horretan trafikoa itxi zuen Udalak eskolako sarrera eta irteera orduetan, eta oinez egiten dira joan-etorriak. Oiartzunen zazpi auzo eta erdialdea dira. Ugaldeko eta Mendibil auzoetatik datorren bidea mantentzen da. Gutxi gorabehera 50 bat umeko taldea etortzen da bide horretatik. Gurasoen autoetan etortzen ziren umeak dira gehienak. Ikastola aurrean autoekin sortzen zen istilua arindu egin da. Nolanahi ere, eguraldi oso txarra denean egia da berriro gurasoen autoetan etortzen direla. Bestalde, bizikletentzat bide seguruak aztertzen

aritu gara eta maiatzean hasiko gara erabiltzen, eguraldi ona baliatuz.

Azkenik, egunotan jarriko dugu martxan ikastolako autobusaren ordez herriko autobus zerbitzua erabiltzea. Herrian badago herri barruan ibiltzen den zerbitzu bat, eta ekainera bitartean DBHkoekin proba egin nahi dugu ea nola funtzionatzen duen ikusteko. Hasteko, ikastolako zerbitzuan etorriko dira eta herrikoan joango dira etxera. Bazkaltzeko denbora pixka bat gutxiago izango dute, baina ordainetan Udalak txartela emango dio ikasle bakoitzari autobus hori nahi duen bidaia guztietan erabiltzeko, hala nola, eskolaz kanpoko ekintzetan geratzen direnean, musikako eskoletara etortzen badira edo zernahi denerako erabil dezaten. Ekainean balorazioa egingo da eta, positiboa bada, datorren urteko plangintza egiten hasiko gara.

Eguzki plakak ere jarri genituen, eta energiaren gaia ikasleekin lantzeko erabiltzen dugu. Zaborraren gestioa eta birziklapena ere urteetan landu dugu, eta horrekin lotuta, maiatzaren 5ean jarriko dugu martxan gaikako bilketaren sistema. Konpostagailua ere badugu. Botatzen den materiaren hezetasunarekin asmatzea kosta egin zaigu, baina asmatu dugu eta leku askotatik etortzen zaizkigu nola funtzionatzen duen ikustera.

# IKASTOLA BERDEAK

## Eramangarritasunaren alde lanean

Nazio Batuek 1987an egindako txosten batean erabili zen lehen aldiz "garapen eramangarria" kontzeptua, eta honela definitu zuen esanahia: "biharko belaunaldien premiak albo batera utzi gabe gaurkoak asetzen dituen garapena". Bost urte geroago Rio de Janeiron egin zen Lurraren Gailurrean hasi ziren Agenda 21 programaren ildo nagusiak lantzen. Gaur, Eskola Agenda 21 programarekin ari dira lanean ikastola asko eta asko. Guk lau ikastolatara deitu dugu alor honetan zer egiten duten jakiteko eta gauza oso interesgarriak entzun ditugu.

### HAZTEGI IKASTOLA LEGAZPI

(Arantxa Seguro. Agenda 21eko kidea)


#### ZAZPIGARREN URTEA AGENDA 21EKIN

Zazpigarren urtea da Agenda 21ean gaudela. Urtero bailara mailan lantzeko gai nagusi bat aukeratzeko dugu. Hondakinekin hasi ginen; ura eta energia landu genituen ondoren; laugarren urtean landutako gaiak berrikusi genituen; kontsumoa jorratu genuen ondoren; iaz, diferentzia sozialak eta aurtan, garapenaren helburuak lantzen ari gara. Gela bakoitzean ikasleen ordezkarri bana aukeratzeko da eta ordezkarrien taldeak kudeatzen du programa. Hiru ataletan egiten dugu lan: curriculum barruan egiten den lana dago batetik, ikastetxean ohiturak aldatzeko egiten den lana dago bigarrenik eta herri mailan egiten den lana dago hirugarrenik. Aurtengo herri mailako lana herritarrei inkesta zabal bat egitea izan da: eramangarritasunaren inguruan galdeketa bat egin diegu herritarrei.

Urtean lantzen den gai bakoitzak eskatzen dituen

ekintzak burutzen dira. Energia landu genuen urtean argindarra aurrezteko ekintzak programatu genituen: mantenua egiten duten langileekin batean ikastola barruan edo Eguberritako argiak gutxitzeko plangintza bat egin zen Udalarekin batean. Guk urtero Eguberritan berrerabilitako irudiekin jartzen dugu jaiotza, edo ikastolen festan txoko berezi bat antolatzen dugu gai horien inguruan. Datorren hilean, esate baterako, aurtengo gaiarekin lotuta, bidezko merkataritzari buruzko azoka bat antolatuko dugu herrian.

Konpostagailurik ez dugu ikastolan, lekurik ere ez dugulako. Eguzki plakak, berriz, Udalak ezarri zituen eta berak kudeatzen ditu. Agendaren Txokoa dugu gai hauen inguruko berriak emateko, eta ondoan erregistro bat jarrita dugu plakek une bakoitzean zenbat kargatzen duten ikusteko.







## SAN BENITO IKASTOLA LAZKAO

(Eider Goenaga. Agenda 21eko koordinatzailea)

### 'OINEZKOEN METROA' JARRI DUGU MARTXAN

Laugarren ikasturtea dugu Agenda 21ekin lanean ari garena. Lehen urtean hondakinen inguruan egin genuen lan. Irakasle bat genuen baserria zuena, eta ikasturte bukaeran konpostagailuarekin hasi ginen lanean. Ikastolako soberakin organikoak hartu, eta ikastolako langileek bertara eramaten zituzten tratatzeko. Urtebetez konposta egin ondoren irakasle hori jubilatatu egin zen eta geroztik konpostagailua jartzeko leku bila gabiltza, baina ez dugu lortu oraindik. Bigarren urtean uraren inguruan egin genuen lan, eta azken bi urteotan mugikortasuna izan da gehien landu dugun arloa.

Ikasturte honetan egin dugun proiektu

nagusia 'oinezkoen metroa' martxan jartzea izan da. Goizeko 09:30etan eta eguerdiko 14:30etan ikastola sarreran sekulako auto pilaketak sortzen ziren, eta hori arintzeko jarri dugu martxan proiektua. Herrian hiru linea antolatu dira. Herrian bide posibleen azterketa bat egin zen, eta zebra-bideak zeharkatu behar direnean udaltzainak egoten dira bertan. Guraso boluntarioak umeak bilduz etortzen dira. Ume bakoitzak badaki zer ordutan egon behar duen bere 'geltokian'. Goizero 100 ume inguru etortzen dira sistema honekin ikastolara eta auto pilaketa arintzea lortu dugu. Goiza ibilalditxo bat eginez hastea ere ona dela iruditzen zaigu. Ikasleak oso pozik daude eta gurasoak ere bai. Oraingoz ikastolarako etorrera egiten dugu sistema horrekin. Guraso taldea handituko balitz, bueltakoa ere antolatuko genuke. Gela barruan ere gai honi buruz asko hitz egin dugu.

Mugikortasunaz gainera, paperaren berrerabilpena, argindarra aurrezteko hartu beharreko ohiturak eta beste hainbat gai ere landu ditugu. Gela bakoitzean dago Agenda 21 programaren ordezkarri bat. Ingurumen batzordera joaten dira ordezkarri horiek eta lau irakasle, eta jasotzen diren proposamen guztiak aztertzen ditu batzordeak. Aurten, esate baterako, dekalogo bat atera du batzorde horrek ingurumena eguneroko bizitzan nola zaindu behar den agertzeko. Eguzki plakak ere baditugu, eta ikasleekin lan egiteko erabiltzen ditugu.



## UDARREGI IKASTOLA USURBIL

(Joseba Berriozabal. Natur Zientzietako irakaslea DBHn)

### HERRIKO ZABOR BILKETA SISTEMAREKIN LANEAN

Herrian zabor bilketa sistema berri bat ezarriko zela kontuan izanik, iazko ikasturtean hasi ginen gai horren inguruan lan egin eta sistema bera praktikan jartzen. Herri mailan eztabaida oso bizia eta politizatua egon da.

Ikasleen artean ez da eztabaidarik apenas izan, adinak ez zuelako horretarako laguntzen.

Eztabaida horren izpi batzuk iritsi dira gelara, baina gutxi.

Gure aldetik bilketa-sistemak dituen onurak agertzen saiatu gara eta naturaltasun handiz ezarri da sistema ikastolan. Gela guztietan hiru ontzi daude (kristala, papera eta plastikoa zein errefusa biltzeko) eta toki jakinetan organikoa biltzeko ontzi bereziak ere bai. Ontzi berezi horietan, sukaldeko soberakinez gain, ikasleek egunero eramaten dituzten fruta azalak eta ogi zatiak biltzen dira. Udalak sistema

berria iragarri zuenean hasi ginen lanean. Gela bakoitzean arduradun bana dago gelako ontzi txikietatik ontzi handietara zaborra biltzeko, eta zaborra biltzen ari diren langileek etxe bat gehiago balitz bezala biltzen dute ikastolakoa. Garai batean dena ontzi batean botatzen zen, eta poliki-poliki lau ontzitarra botatzen ohitu dira ikasleak. Harridura gehien sortzen duena zera da, zenbat ontzi arin pilatzen dugun, jaki guztiak plastikozko estalkietan ekartzen baititugu.

Konpostagailua azken hilabetean ekarri ziguten ikastolara eta oraindik ez dugu lan askorik egin. Dena den, lehendik ere hiruzpalau irakasle, neu tartean nintzela, ari ginen geure etxeetan konposta egiten, eta badugu esperientzia pixka bat arlo horretan. Lanean hasteko asmoa dugu. Udalak baratza eta konpostagailua jarri dizkigu eta helburua kultura berri bat sortzea da, sortzen dugun zaborra kudeatzen ikastea, alegia. Konpostagailuaren bidez, naturari kendu dizkiogun osagarri zenbait berriro itzuli egiten diogu baratzean erabiliz. Eta hori guztia teknologia konplexurik gabe lortzen da, tratamendu sinple baten bidez.

HAURTZARO, HAZTEGI, SAN BENITO ETA UDARREGIKO, LAU IKASTOLETAKO, ESPERIENTZIAK JASO DITUGU ORRIALDEOTAN. LABUR, LABURREGI JASO ERE, ASKO BAITUTE KONTATZEKO. ERREPORTAJE LUZEA EGITEKO MODUKOA.

## IKASTOLAS SOSTENIBLES

Son cada vez más las ikastolas que trabajan con el programa Agenda 21, que promueve el desarrollo sostenible, trabajando para ello temas relativos a la gestión de los recursos y de los residuos o proyectos centrados en la mejora del entorno cercano, así como proyectos de huerto, energía solar o movilidad. Una pequeña encuesta telefónica nos ha permitido conocer, por ejemplo, dos experiencias interesantes en torno a la movilidad

vial. La ikastola Haurtzaro de Oiartzun y San Benito de Lazkao llevan un tiempo trabajando en el proyecto Oinesbus (Haurtzaro) y Oinezkoen Metroa (San Benito), en el que padres voluntarios acompañan a los alumnos que realizan a pie el trayecto de ida y vuelta a la ikastola. Es tan sólo un ejemplo de los que se llevan a cabo para concienciar a los alumnos en la necesidad de un desarrollo sostenible.

## IKASTOLA SOUTENABLES

De plus en plus d'ikastola travaillent sur l'Agenda 21, qui promeut un développement soutenable, en traitant par exemple de sujets relatifs à la gestion des ressources et des résidus ou encore en développant des projets centrés sur l'amélioration de l'environnement proche, comme par exemple des projets de potager, d'énergie solaire ou de mobilité. Une enquête téléphonique a permis par exemple

de connaître deux expériences intéressantes sur la mobilité routière: les ikastola Haurtzaro de Oiartzun et San Benito de Lazkao ont travaillé sur les projets Oinesbus (Haurtzaro) et Oinezkoen Metroa (San Benito), où des parents bénévoles accompagnent à pied les élèves jusqu'à l'école. Ce n'est là qu'un exemple permettant de sensibiliser les élèves à la nécessité d'un développement soutenable.



GARBERA ARRASATE



*iparraldean:*

# SEASKAKO IKASLE OHIAK

Seaskako lehen belaunaldian 7 ikaslek bukatu zuten baxoa. 1968an jaiok ziren. 2007an 40 ikaslek. Hauek 1993an jaiok. Bi data horien artean mila ikasle pasak egin dute brebeta edo baxoa Seaskan. Horien ibilbide akademikoa eta profesionala, euskararekiko atxikimendua, egiten duten Seaskarekiko balorazioa eta beste hainbat datu jakingarri aztertu zituen iaz Gaindegiak aurkeztu zuen ikerketa soziologiko batek. Seaskako ikasle ohi soziologo batek zuzendu zuen lana, Eneko Gorri, alegia. Berarekin mintzatu gara. Elkarrizketan, datu jakingarri batzuk aipatzeaz gainera, eta Seaskako ikasle ohiek bizi dituzten hainbat paradoxa ere jorratzen ditu. Lanean ari diren eta gaur Leioan ikasketak egiten ari diren ikasle zenbaiten lekukotasunak ere bildu ditugu orrialdeotan.

**Eneko Gorri**  
*“Ikasle ohien artean laurdena irakaslea da”*



ENEKO GORRI. “SEASKAKO IKASLE OHIEN IBILBIDE AKADEMIKOA ETA PROFESIONALA” AZTERTU DUEN SOZIOLOGOA DA. IKASLE OHI BATZUK OKALIZATU ETA HAIEN BIDEZ BESTEEN AZTARNAK JARRAITUZ, GUZTIRA 1.089 IKASLE OHIEN KONTAKTUA EGIN ZUEN. HORIETATIK, 515K ERANTZUN DUTE.

**B**AIONARRA DA. Xalbador kolegioan eta Etxepare lizeoan egin zituen ikasketak. Amets Arzallus bertsolariaren gelakoa zen. Bordelen atera zuen Soziologiako lizentziatura. Lau urtez lan egin eta bidaiatzeko urtebete hartu ondoren, berriro master bat egitera itzuli da Bordelera. Bera izan zen iaz kaleratu zen “*Seaskako ikasle ohien ibilbide akademikoa eta profesionala*” azterketa soziologikoaren arduraduna.

**Gaindegiak argitaratu zuen azterketa soziologiko hori. Aurretik beste lanik egin al zenuen Gaindegiarentzat?** Gaindegiaren helburua Euskal Herria estatistikoki eraikitzea da. Nafarroan INEK eta EAEn Eustatek elaboratzen dituzte datuen araberako estatistika bilketa egin behar zen Iparraldean, eta egiteko horretan jardun nuen Seaskako ikasle ohien azterketa egin aurretik. Taldean egin genuen lanaren helburua Iparraldeko datuak

bildu eta bateragarritasuna aztertzea izan zen. Tamalez, Estatu frantziarrean ez dira udalerrira datuak biltzen. Ezin da jakin, esate baterako, Baionako langabetuen tasa, datu bilketa eskualdeka egiten dutelako. Eta horrek zaildu egiten du gizartearen ezagutza. Seskako ikasle ohiena izan zen, dena den, zuzendu nuen lehen lana.

**Zein izan zen Seaskako ikasle ohie buruzko datuak biltzeko erabili zenuten bidea?**

Bi multzo hartu genituen: Seaskatik Brebetarekin (15 urte arteko ikasketak) atera direnak lehenik, eta bigarrenik, Baxoarekin (18 urte arte) atera direnak. Zailena beharbada ikasle ohi horiek lokalizatzea izan zen. Batzuekiko harremana Seaskaren bidez egin genuen, baina gutxi izan ziren horiek. Ikasle ohi batzuk lokalizatu eta haien bidez joan ginen besteak non ziren jakiten. Zaharrenak 1968an jaiok ziren eta gazteenak 1993an

jaiok, 2007an baxoa bukatutakoak, alegia. Guztira 1089 ikasle ohi ziren. Horietatik 515k erantzun zuten.

**Zein arlo aztertu zenituzten?** Bospasei arlo ziren. Ikasketa ibilbidea, ibilbide profesionala, euskarari buruzko atxikimendua, Seaskari buruzko balorazioa eta etorkizunean beren haurrak ikastolan izateko asmoa zuten edo ez, eta Hego Euskal Herrira ikasketak

egitera edo lanera joateko aukera nola ikusten zuten.

**Banan-banan arlo batzuk aipa ditzagun. Har dezagun euskara. Zer-nolako atxikimendua dute?**

Ehuneko 89k esaten dute atxikimendu handia dutela. Askok euskara beren lantokian erabiltzen dute, bai lankideekin eta bai bezeroekin, nahiz eta lantokiak berak ez duen euskara batere baloratzen. Horrek harritu gintuen. Erabileraz ez zen beste ezustekorik izan; denok dakiguna agertu zen, hala nola, arlo pribatuan erabiltzen dute, familian eta lagunekin. Arlo publikoan, berriz, oso gutxi.

**Ikasketak ibilbideari buruz, zein ikasketak dira Sekasko ikasle ohientzat gogoenak? Irakaskuntza, komunikabideak eta gizarte zientziak dira ikasketak aldetik gehien aukeratzen dituztenak. Etxepare Lizeoan erdiak edo baxoaren modalitate zientifikoa aukeratzen du, baina gero ez dituzte arlo**



horretara bideratzen ikasketak. Azken bospasei urteotan ikasketak hasi aurretik pare bat urte etxetik urrun igarotzeko ohitura ari da nagusitzen ikasle ohien artean. Askok Bordelera joaten dira eta ingelesa ikasi, bidaiatu eta bizimodu berri bat eginez igarotzen dituzte pare bat urte ikasketak hasi aurretik. Ikastola familia txiki bat da, eta giro hori utzi eta aldi baterako moztu egin nahi izaten dute. Askori arraroa egingo bazaie ere, badaude ikasleak, eta ez dira horren gutxi, familia txiki horren ikuspegia pisua egiten

zaienak. Ikastola txikiak dira, familiak ere txikiak eta giro itogarria egiten zaie. Presio sozial bat sentitzen duten kexa agertzen dute. Ikastolatik atera eta herrian irakasleak ikusten dituzte kalean asteburuetan ere. Irakasleak, gainera, gurasoen lagunak dira eta egiazko familia batean bizi diren sentipena dute. Eta ikasleak bere autonomia lortzeko arazoak dituela sentitzen du. Gehienek giro hori aberasgarria dela uste dute, baina badaude kexu direnak ere. Ikastolari buruzko ikuspegia, dena den, asko aldatu da lehen belaunalditik gaurkora. Lehen belaunaldiek asko sufritu zuten ikastolako izatearen estigma. Konpromiso ia-ia politikoa eskatzen zuten. Gaur hezkuntzaren kalitatea, bigarren hizkuntza bat menperatzea eta gisako irizpideak ere erabiltzen dira haurra ikastolara bidaltzeko orduan.

**Ikasketak aukeratzeko orduan gizarte arloetarako joera aipatu duzu. Beharbada**

**gurasoen profilak ere badu eraginik. Jende euskaltzalea da, gizartearekiko konpromisoa duena...** Beharbada etxetik dakarren sentsibilitateak badu zerikusirik eta gogoeta sustatzen duten ikasketak motak aukeratzen dituzte.

**Dena den, era guztietako profilak aurkituko zenituzten ikasle ohien artean.** Badira biologoak Kaledonia Berrian lanean ari direnak, badira ardo-dastatzaile bat eta musikari bat Londresen, bada antropologo bat Perun, Txinan badira informatikari bat eta itzultzaile bat. Azken honek txinera, hebraiera eta beste zenbait hizkuntza dakizki. Baionako errugbi taldean bada jokalaria profesional bat...

**Irakasleen presentzia nabarmena al da?** Harrigarria. Ikasle ohien artean laurdena, beraz lautik bat, irakasle da edo irakasle laguntzaile. Lanbide izateaz gainera, euskararen alde lan egiteko modu bat da. Seaskan lan egiten dute,

baina baita sare publikoan ere.

**Zein da ikusi duzuen hutsunerik handiena?** Seaskako ikasle ohien artean enpresa buruak falta dira. Enpresa mundura begira oso gutxi egin dituzte ikasketak. Hor hutsune handia dago. Eta etorkizunari begira nork hartuko dituzte hemengo enpresetan postu garrantzitsuenak? Ditugun enpresa buruak nor diren begiratu eta oihartuko gara denak laborariak direla edo artisauek.

**Ikasketak egitera kanpora joaten direla esan duzu lehen. Ez al dira horrekin kezaketen?** Paradoxikoa da, baina ez dira kezaketen. Ikasleei galdetzen diegularik nola bizi izan duten erbestertze hori, gehiago handi batek erantzuten du Iparraldean ikasketak egiteko aukera izanik ere, nahiago izango zutela Bordelera edo Tolosara joatea, ingurunez aldatzeko beharra baitute. Paradoxa handia da hori. Gure

Solicitud de matrícula: Entre el 3 y el 31 de mayo de 2010.  
A partir del 1 de junio de 2010, 20% de incremento.

**Matrikula eskaria:**

Ohikoa: 2010eko maiatzaren 3tik 31ra.  
2010ko ekainaren 1etik aurrera %20 gehiago.



**XXIX Cursos de Verano**  
*Uda Ikastaroak*  
**XXII Cursos Europeos**  
*Europar Ikastaroak*  
San Sebastián Donostia  
Junio-Septiembre Ekaina-Iraila  
2010

Egitaria zehaztuak/programas detallados  
[www.affm.es/uradaverano](http://www.affm.es/uradaverano)

Información e Inscripciones -  
Secretaría de los Cursos  
Palacio Miramar 20007  
SAN SEBASTIÁN  
Tel. (+34) 943 21 95 11 -  
Fax (+34) 943 21 95 98  
cursosverano@sc.ehu.es

Argibideak eta izen ematea -  
Bastaroen Idazkaritzan  
Miramar Jauregin 20007  
DONOSTIA  
Tel. (+34) 943 21 95 11 -  
Fax (+34) 943 21 95 98  
cursosverano@sc.ehu.es

El programa de esta XXIX edición comprende Cursos, Seminarios, Encuentros, Escuelas, Jornadas profesionales, Talleres y Congresos y buscan responder a las necesidades e intereses de todo tipo de alumnado (estudiantes, profesionales, profesores y público en general), articulándose en torno a cuatro ejes principales:

**Aprender para vivir**

- Ciencias de la Salud
- Psicología
- Deporte
- Historia y Cultura
- Lingüística y Literatura
- El viaje de la vida

**Aprender para convivir**

- Derecho
- Sociedad
- Ciencias de la Información y Comunicación
- Ciencias Sociales

**Aprender para progresar**

- Energía, Medio Ambiente y Desarrollo Sostenible
- Economía, empresa y Europa
- Idiomas para extranjeros
- Arquitectura y Urbanismo
- Ciencia y Tecnología

**Aprender para enseñar**

- Educación
- Universidad

Aurriengo edizioaren egitarauak, Ikastola, Mintegi, Elkargune, Eskola, Jardunaldi Profesional, Taller eta Kongresuek, mota guztietako ikasleen (ikasle, profesional, irakasle eta gaitortzerako partaideen) beharizan eta interesen erantzulea dute behar eta lan arak nagusian banaturik ditugu:

**Bizitzeko ikasten**

- Osasun Zientziak
- Psikologia
- Kirola
- Historia eta Kultura
- Hizkuntzalantza eta literatura
- Bizitzaren bidaiak

**Elkarrekin bizitzeko ikasten**

- Zuzenbidea
- Informazio eta Komunikazio zientziak
- Gizarteak
- Gizarte zientziak

**Aurrera egiteko ikasten**

- Energia, Ingurumena eta Garapen Jasangarria
- Ekonomia, Enpresa eta Europa
- Atzerriarrentzako Hizkuntzak
- Arkitektura eta Hirigintza
- Zientzia eta Teknologia

**Irakasteko ikasten**

- Hezkuntza
- Unibertsitatea



San Sebastián  
Donostia  
Avenida de la Universidad  
E-48940 LEZAMA  
2010

Fundazioa **BBVA**



diskurtsoetan beti esaten dugu gazteria behartua dela kanpora joatera, baina ikastolako ikasleentzat bederen ez da egia hori. Baina badago bigarren paradoxa bat ere: ez dira joaten Lillera, Parisera edo Marseillara. Bordelera edo Tolosara joaten dira. Zergatik? Asteburuetan berriro etxera etortzeko. Hausteko gogoia dute, baina ez erabat. Etxekoak, lagunak ikusi nahi dituzte, pilotan edo errugbian jarraitu, gaztetxean lan egin eta hemen festa egin. Ateratzeko beharra dute, baina lotuak daude afektiboki Euskal Herriarekin. Badaude, noski, Belgikara edo Londresera doazenak ere. Urrun joaten direnek proiektua garbiagoa dute eta proiektu horren bila joaten dira. Bordelera edo Tolosara doana airez aldatzeko da.

**Aipa dezagun Hegoaldeko aukera. Mugak ba al du indarririk oraindik ere?**

Mugarik ez dagoela esaten dute hitzez, baina errealitatean oso gutxi zeharkatzen dute muga hori. Nire ustetan, muga hor dago. Lan egiteko orduan edo ikasketak egiteko orduan mugak pisu handia du. Frantses Estatua hartu eta muga guztiei begiratzen badiegu, mugarik itxiena lan-harremanetarako Euskal Herrikoa da. Herri bat garelako aldarrikatzen dugu, baina praktikan oso harreman gutxi dugu lan eremuan. Frantziar batentzat askoz ere errazagoa da Italian, Suitzian edo

Alemanian lan egitea 'Espainia'n baino. Ni hendaiarra banaiz eta enplegu bulegora

banoa, Bordelera arteko aukerak emango dizkirate, baina ez Donostiakorik. Ez da horrela Alsazian. Galdetzen diegularik ikasle ohiei ea lansari on bateko lana Hegoaldean aurkituz gero joango ote lirakekeen, oso uzkur agertzen dira.

**Soldata mailan diferentziak daudelako izan daiteke beharbada.**

Guk egin ditugun kalkuluen arabera, ez dago diferentzia handirik. EAEko langileek Iparraldekoek baino zertxobait gehiago irabazten dute, orduko

20 zentimo gehiago, nahiz eta gutxieneko soldata Iparraldean nabarmen hobe den. Hemen orduko batez bestekoa 11,20 eurokoa da eta EAE 11,40koa da.

**Nekazaririk ageri al da ikasle ohien zerrenda horretan?**

Badira zazpi bat nekazari ikasle ohien artean. Uste dut denak jabeak direla. Batzuek etxalde berri bat sortu dute.

**Langabetuen portzentajea nolakoa da?**

Oso apala. Gizarteko portzentajea baino askoz ere

apalagoa. Kontuan hartu behar da gure ikasle ohien artean heren bat bakarrik dela lanean ari dena, besteak ikasketak egiten ari direlako. Baina heren horretan oso gutxi dira langabetuak.

**Zure txostenean ikasle ohien elkarte bat aipatzen duzu.**

Bai, horretan ari dira. Oker ez banaiz ekainean dira aurkezpena egitekotan. "Ikastolakoak" izena izango duen elkarte izango da, non ikasle eta guraso ohi, langile eta lagunak elkartuko diren. •



## Hamabost ikasle Leioan

**ARGAZKIAN AGERI DIRENAK ENEKO ALDANA, JULEN GUIRESSE eta TXOMIN CASTEIGTS DIRA.** Zientzia Politikoak egiten ari dira, lehena hirugarren ikasturtean eta beste biak lehengoan. Egin zuten kontaktaren arabera, hamabost bat Seaskako ikasle ohi dira Leioan, erdiak inguru Zientzia Politikoetan, beste erdiak Kazetaritzan eta bakarren batzuk Arte Ederetan. Aldana Ziburukoa da. Aita bizkaitarra du eta lehendik ezagutzen zuen Bilbo. Guiresse Maulekoa da eta Casteigts Hazparnekoa eta ikasturteko lehen ostegunak horretarako baliatu zituzten, gaupasa batzuk eginez hiria ezagutzeko. Orain ostegun arratsaldean

joaten dira etxera eta igande gauean itzultzen dira Irundik autobusean. Leioa zergatik aukeratu duten galdetu eta erantzuna oso argi dute: ikasketak euskaraz egiten direlako. Aldanak lehendik zekien gaztelera. Beste biek ez, baina testuak irakurtzeko adina moldatzen dira eta datozen ikasturtean ikasiko dute. Seaskako ikasle ohiok elkarrekin ibiltzen dira, baina ez dute inolako arazorik izan Hegoaldeko giroan integratzeko. Geu izan ginen horren lekuko, izenagatik galdetzea aski izan baitzen non zebiltzan jakiteko. Ez direla oharkabean ibiltzen diren horietakoak, alegia. •

### RETRATO DE LOS EX ALUMNOS DE SEASKA

Una gran mayoría de los ex alumnos de las ikastolas de Iparralde (%88) juzgan como muy positiva la educación que han recibido en Seaska, ocho sobre diez piensan educar a sus hijos en la ikastola, pero hay un cierto número de jóvenes que sienten la necesidad de romper el cascarón y cambiar de aires. Por ello, la mayoría de ellos opta por iniciar los estudios lejos de la familia, en Burdeos o en Toulouse, aunque tampoco demasiado lejos, porque sienten la necesidad de volver los fines de semana a casa. El 96% de los que terminan el Bachiller deciden seguir los

estudios, pero optan por las ciencias humanas y la educación en detrimento de los estudios de ingeniería o las ciencias aplicadas. De hecho, uno de cada cuatro ex alumnos que han respondido a la encuesta trabaja en la enseñanza. Luego vienen la sanidad, los servicios sociales y los medios de la comunicación. El estudio dirigido por Eneko Gorri y publicado por Gaindegia el pasado año analiza esos y otros muchos aspectos de interés. Estuvimos con el sociólogo y algunos de los alumnos que estudian en Leioa.

### PROFIL DES ANCIENS ÉLÈVES DE SEASKA

La grande majorité des anciens élèves de Seaska (88%) considère comme très positive l'éducation reçue à l'ikastola. Huit élèves sur dix pensent scolariser leurs enfants à l'ikastola mais un certain nombre de jeunes jugent qu'il est nécessaire de sortir du cocon et de changer d'air. Ainsi, la majorité d'entre eux opte pour une poursuite des études loin de la famille, à Bordeaux ou à Toulouse, mais sans aller trop loin pour pouvoir rentrer à la maison en fin de semaine. 96% des bacheliers décident de poursuivre leurs études dans

les sciences humaines ou l'enseignement au détriment des études d'ingénieur ou des sciences appliquées. Ainsi, une personne sur quatre ayant répondu à l'enquête travaille aujourd'hui dans l'enseignement. Ensuite viennent la santé, les services sociaux et la communication. Cette étude, dirigée par Eneko Gorri et publiée par Gaindegia l'année dernière, offre d'autres renseignements très intéressants. Nous nous sommes entretenus avec le sociologue et des élèves étudiant actuellement à l'Université du Pays Basque de Leioa.

# Zatoz zientziaren aurpegi alaiaren bila!

gizarte ekintza

hezkuntza



## ETORTZEN BAZARA EZ DUZU ALDE EGIN NAHI IZANGO!

- 170 esperimentu interaktibo
- Planetarium Digitala
- Planetarium Txikia
- Exploratoriumeko Simulagailuak: Errusiar Mendia eta Tranbia
- Animazio ekintzak eta tallerrak, adin guztietako jendeari zuzenduta
- Bestelako zerbitzuak: aparkalekua, kafetegia, denda, pic-nic gunea, ingurune aparta,...



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Zatoz Zientziaren  
kutxaGunera**

### Zientziaren kutxaGunea

Mikeletegia Pasealekua, 43-45 – 20009 Donostia

Tlf: 943 012 478. [www.miramon.org](http://www.miramon.org)

[kutxaespacio@kutxagunea.org](mailto:kutxaespacio@kutxagunea.org)

zer nahi duzu bihar?

*nafarroa:*

## TUTERAKO GURASOAK HUNKITU ZITUEN BIDEOA

**TUTERAKO ARGIA IKASTOLAK 25 URTE BETE DITU AURTEN, ETA URTEURRENA OSPATZEKO ANTOLATU DITUEN EKITALDIEN ARTEAN BADAGO BAT BEREZIKI HUNKIGARRIA DENA.** Nahi duenak Youtuben ikus dezake helbide honetan:

<http://www.youtube.com/watch?v=C4iR3c5sKF8>. Bertan

Donostiako Easo abesbatza "Zorionak" kantatuz hasten da, eta Jarauta 69 txaranga, Junkera, Natxo de Felipe, Atxaga, Osasunako eta Realeko jokalarari zenbait, pilotariak eta beste hainbat lagun agertzen Argia ikastola zorian zuten.

"Urtemugako egitaraua egiteko batzorde bat osatu genuen eta ikastolako jakinaren gainean izan gabe grabatu genuen bideoa. 25. urtemugako egitaraua aurkeztu genuen ekitaldiaren amaieran ezustean erakutsi genuen, eta jendea izugarri hunkitu zen", kontatu zigun **Jabier Castellano**k, batzordeko koordinatzaileak.

Bideoaren zatiak grabatzeko orduan bakoitzak bere bitartekoak erabili zituen. "Pilotarien irudiak, esaterako, telefono mugikor batekin grabatuak dira, alkatearen irudiak argazki makina batekin, eta Durangoko Azokan grabatutako musikari eta idazleek, berriz, ikastolako gerenteak lortu zituen bere kontura.

Austrian ikasketak egiten ari den ikasle ohia nire iloba da; bertso bat botatzen agertzen da Danubio ertzean. Eskatutako guztiak prest agertu dira parte hartzeko eta emaitza

*hunkigarria geratu da", jarraitu zuen.*

Oskorri eta Tuterako Udal Bandak zabaldu zuten 25. urteurrenaren egitaraua iazko uztailan herriko festen bezperan. Gaez eman zuten kontzertua aire librean eta ikusgarria atera omen zen. 1.500 lagun bildu ziren.

Abenduan Donostiako Easo abesbatza izan zen Tuterako parrokiaren. "Apaizek esan ziguten ez zutela aspaldi honetan eliza horren bete ikusi", komentatu zuen Jabierrek.

Urtarrilean euskarazko zinemaren zikloa egin zuten, eta otsailan, berriz, herriko artisten erakusketa. Herriko hamabost margolarik eta eskultorek hartu zuten parte. Juan Betzunegui, Angel Charela eta Jabier Sueskun ziren, esate baterako, tartean. "Urteak ziren herriko artista hauek elkarrekin ez zutela erakusketa bat egiten. Udalekoek esan ziguten gol bat sartu geniela. Eta oso erakusketa interesgarria atera zen", jarraitu zuen Jabierrek.

Martxoan Unai Garbisu xakeko nazioarteko maisuaren kontra txapelketa jokatu zuten ikastolako ikasleek, guraso batzuek eta herri zenbait lagunek. Apirilera eta maiatzeko

# NAFARROAKO IKASTOLAK URTEURRENAK OSPATZEN

Tuterakoak ekitaldi handiak antolatu ditu 25 urteak ospatzeko

Ikastolen sorrera inon zaila izan bada, Nafarroan izan da. 1965ean zabaldu zen gerra ondoko lehena, Uxue ikastola, eta hura zatitu zelarik jaio ziren bost urte geroago San Fermin eta Paz Ziganda. Bi hauek aurtien betetzen dituzte 40 urteak. Baina badira beste ikastola batzuk urtebete aurretik edo ondoren ireki zirenak. Urteurrena ospatzeko ekitaldiak prestatzen ari dira. Badira beste batzuk geroxeago jaio direnak eta aurrekoek adina meritu dutenak. Horietako bat da Tuterako Argia ikastola. Aurtien 25. urteurrena betetzen ari da eta bertako berri emanez hasiko gara.

hitzaldi sorta luzea dute antolatuta; hizlarien artean Kirmen Uribe idazlea, Iruñeko Hizkuntza Eskolako zuzendari den Patxi Telletxea, Eduardo Lacasta matematika katedraduna eta Pedro Migel Etxenike daude.

Elvi bentrilokuaren emanaldia egingo da ekainean eta Erramun Martikorena eta Jean Mixel Bedaxagarren kantaldia ere bai. Ekainaren 19an Ikastolaren Eguna ospatzen dute urtero, eta gauza berezi bezala ikastolako guraso eta laguntzat afari bat antolatu dute herriko hotel batean. "Hirurehun bat lagun biltzeko asmoa dugu. Jarauta 69 txaranga etorriko da eta berbena izango dugu goiz aldera arte", esan zuen Jabierrek.

Erriberako tradizioak biltzen dituen Jimeno Jurioren liburu bat ere argitaratu nahi dute, eta ikastolaren 25 urteko historia biltzen duen beste bat ere bai. "Bigarren liburu hau prestatzen ari zen Jose Migel Bidador hil egin da 39 urterekin; honenbestez, liburu hori atzeratu egingo da tamalez", erantsi zuen. •

## BERROGEI URTEKO HISTORIA DUTEN IKASTOLAK

### INÍGO ARITZA IKASTOLA OLAZTI-ALTSASU (*Esther Garayalde zuzendaria*)

1969an umeak ikastolara bidaltzeko prest zeuden gurasoen sinadurak biltzen etxez etxe ibili ondoren zabaldu zen Olaztin Sakanako lehen ikastola. Bultzagileen artean Jorge Cortes eta Joxe Mari Satrustegi zeuden. Geroztik beti izan dira herrian gela batzuk, eta orain ere HHko bi gela ditu Altsasuko Inígo Aritza ikastolak han. Urtemuga ospatzeko berrogei urteotako irudiak erakusten zituen argazki erakusketa antolatu zen, haurrentzako asteburu bat puzgarri eta jokoekin, eta bazkari herriko bat ere bai. Urtarrilaren 31ean, egun hura gogoratuz, Mikele Aierdi eta Mila Lopez de Goikoetxea lehen irakasleei omenaldia egin zitzaizen eskualde mailako 230 lagun bildu zituen bazkari baten buruan. •

NAFARROAKO IKASTOLAK OSPAKIZUNETAN MURGILDUTA, BIZITAN LEGEZ, URTE BIRIBILAK GOGORATZEKO AITZAKIA BAINO EZ DIRA. HALA NOLA, 25 ETA 40 URTEURRENAK, ZORIONAKI

### TAFALLAKO IKASTOLA (*Rexu Urrutia zuzendaria*)

Aurten bete da gure ikastola sortu zeneko 40. urtemuga, 1970eko urtarrilean zabaldu baitzen. Baina 2011ko Nafarroa Oinez egingo dugunez, datorren irailean abiatuko dugun egitarau berezian ekitaldiaren bat antolatzea erabaki zen, dagoeneko eratuak baitira batzorde iraunkorra eta lan batzordeak. Ikasle ohiekin egin nahi genuke zerbaite. Ez dakigu oraindik zer egingo dugun, baina ahalik eta ikasle ohi gehien bilduko dituen ekitaldi bat antolatuko dugu seguru asko. Hori izango da 40. urtemuga ospatzeko modurik onena. •

### SAN FERMIN IKASTOLA ZIZUR TXIKI (*Pilar Vicente zuzendaria*)

Nafarroako gerra ondoko ikastolen historian badago lehen saio bat 1963an porrot egin zuena, irekitze egunaren aurretik inspektoreak gutun bat bidali baitzuen ez zela zilegi esanez, batzordeko kideen artean batzuk susmo txarrekoak zirelako. Handik bi urtera zabaldu zen Uxue ikastola, eta bost urte geroago bitan banatu zen berau; horik sortu ziren Paz Ziganda eta San Fermin. Gurea 1970eko apirilean sortu zen, eta apirilaren 24an egingo dugu urtemuga ospatzeko ekitaldi nagusia Gayarren Paz Zigandakoekin batean. Horretaz gainera, azken hamar urte hauetan gizartean, ekonomian edo hezkuntzan eman diren aldaketak aztertzeko hitzaldi sail bat antolatu nahi genuen. Ideia hori 2012an egingo dugun Nafarroa Oinezeko utzi dugu eta mahai-inguru batera mugatuko dugu ekitaldi sorta hori; apirilaren 22an egingo da. Pello Salaburu eta Koldo Saratzaga ekarriko ditugu. Batak hezkuntzan eman diren aldaketak eta bigarrenak ekonomia arloan eman direnak aztertuko ditu. •

### PAZ ZIGANDA IKASTOLA ATARRABIA (*Iñaki Erroz zuzendaria*)

San Fermin ikastola eta Paz de Ziganda enbor berek jaiotako ikastolak gara eta elkarrekin antolatuko dugu urteurreneko ekitaldi nagusia, apirilaren 24an Gayarre antzokian. Antzokiaren erdia guk beteko dugu eta beste erdia San Fermingoeak. Juan Antonio Urbeltzen "Axeri boda" dantza ikuskizuna izango da ekitaldiaren ardatza, baina aurretik kalejira bat egingo dugu, giroa berotzeko, eta ondoren San Fermin ikastolako eta gure ikasleen abesbatzek kantatuko dute. Berrogeigarren urtea dela-eta, ikasle ohien afari bat ere antolatu genuen azaroaren 21ean. Afari horrek sekulako arrakasta izan zuen eta ikasle ohiak goiz aldera ikastolatik atera ezinik ibili ginen. Halaber, guraso ohien bazkari bat ere antolatu nahi dugu maiatzaren 29an. Aurten Nafarroa Oinez prestatzen ari gara eta beste mila ekintza eta ekitaldi ditugu eskuartean. •

### ANDRA MARI IKASTOLA ETXARRI (*Muxi Mariñelarena zuzendaria*)

Iaz bete zuen 40. urtemuga Andra Mari ikastolak, eta Nafarroa Oinezeko egitarauaren barruan sartu genuen ospakizun hori ere. Ekainean egiten dugun Ikastolaren Egunean aurkeztu genuen 40 urteko lekukotasunak biltzen dituen bideoa. Bertan, hasierako gurasoen eta ikastolako ikasle ohi izanik gaur guraso direnen lekukotasunak eta bizipenak bildu genituen. •

### LIZARRA IKASTOLAK

irailean beteko ditu 40 urte, eta datorren ikasturtean egingo dituzte ospakizunak, Josu Reparaz zuzendariak aurreratu zigunez. •

### BAZTAN IKASTOLA

## LAS IKASTOLAS NAVARRAS CELEBRAN AÑOS

Varias de las ikastolas más veteranas de Nafarroa celebran su 40 aniversario con actividades diversas. Paz Ziganda y San Fermin, por ejemplo, que son hermanos gemelos, reunieron a sus padres, profesores y alumnos en el Gayarre el 24 del mes pasado para asistir al último espectáculo de danzas de Urbeltz, "Axeri boda" y aplaudir la actuación de sus respectivos coros de alumnos. Es

tan sólo un ejemplo de los actos que preparan las ikastolas más veteranas del herrialde. Pero la ikastola que con más entusiasmo está celebrando su efeméride de los 25 años es la de Tuter, que mostró por sorpresa en la presentación del programa de actos un video en el que personalidades de la literatura, la música y el deporte felicitan a la ikastola.

## ANNIVERSAIRE DES IKASTOLA DE NAVARRE

Plusieurs ikastola de Navarre célèbrent leur 40<sup>ème</sup> anniversaire avec diverses activités. Les ikastola jumelles de Paz Ziganda et San Fermin ont par exemple réuni parents, enseignants et élèves à Gayarre le 24 avril pour assister au dernier spectacle de danses de Urbeltz, "Axeri boda", et applaudir la prestation de leurs chœurs d'élèves

respectifs. Et ce n'est qu'un exemple parmi tant d'autres. Mais la surprise du chef revient à l'ikastola de Tuter, qui fête ses 25 années d'existence, qui a présenté son programme à l'aide d'une vidéo dans laquelle des personnalités du monde de la littérature, de la musique et du sport souhaitent bon anniversaire à l'ikastola.

PREST



MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

Nazioarteko bokazioa  
dugu: mundu osoko  
hamaika unibertsitaterekin  
harremanetan gaude

...eta ikasleok ikasketak  
bukatzera edota amaierako  
proiektua egitera atzerrira  
joateko aukera dugu

ZATOZ GURE  
UNIBERTSITATERA!



#### GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

- > Mekanikako Ingeniaritzan Gradua  
*Ingeniería Mecánica*
- > Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzan Gradua  
*Ingeniería en Diseño Industrial y Desarrollo de Productos*
- > Industria Antolakuntzako Ingeniaritzan Gradua  
*Ingeniería en Organización Industrial*
- > Industria Elektronikako Ingeniaritzan Gradua  
*Ingeniería en Electrónica Industrial*
- > Informatikako Ingeniaritzan Gradua  
*Ingeniería en Informática*
- > Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritzan Gradua  
*Ingeniería en Sistemas de Telecomunicación*

#### ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

- > Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Gradua  
*Administración y Dirección de Empresas*
- > Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzan Gradua  
*Liderazgo, Emprendedor e Innovación*

#### HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

- > Ikus-entzunezko Komunikazioan Gradua  
*Comunicación Audiovisual*
- > Haur Hezkuntzan Gradua  
*Educación Infantil*
- > Lehen Hezkuntzan Gradua  
*Educación Primaria*